

PRENTSA-OHARRA

Gidatutako ziztadako ekografo eramangarria pazienteari arreta hobe emateko

- *Tekniker Dispositivos Médicos Flecho enpresarekin lanean ari da zain-bide zentralen ekozitada egiteko gailu baten osagaiak garatzeko*
- *Proiektuaren helburua da gidatutako ziztada optimizatzea, behar baino ziztada gehiago ez ematea eta kalitate sanitarioa hobetzea*

[Eibar, 2020ko maitzak 26] - Ekografo eramangarriek goi-maiztasuneko soinu-uhinak erabiltzen dituzte, eta edozein lekutan kaltegabeko proba diagnostikoak egiteko balio dute. Bere erabileretako bat da sanitarioei laguntzea zain-bide zentralen ziztada egiten; horrela, ziztada kopurua murrizten da, prozesua laburragoa da eta pazienteari arreta hobe ematen zaio.

Prozesu hori optimizatze aldera, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kide den **Tekniker Dispositivos Médicos Flecho** enpresarekin lanean ari da ekografo eramangarri berri baten hardwarea, kanpoko karkasa eta firmwarea diseinatu eta integratzeko. Gailu berriak zain-bide zentralen ziztada egiten lagunduko dio sanitarioari.

Teknikerrek, elektronikan eta doitasun handiko ekipamenduen diseinuan duen ezagutzari esker, enpresaren behar teknologikoei erantzuten die, point of care sistemak integratzeko; ezagutza hori ezinbestekoa izan da elkarlana martxan jartzeko.

Gailu eramangarri honek nabarmen hobetuko du pazienteari ematen zaion arretan, zeren, ziztada kopurua murrizteaz gain, ospitaleko arreta beste ekosistema batzuetara (betiere, arreta sanitariokoak) lekualdatu ahal izango da, eta, horrenbestez, pazientearen bizi-kalitatea hobetuko da.

Proiektuak bi alderdi izango ditu. Batetik, karkasa diseinatuko da, osagai elektroniko guztiak eta transduttore-ekografoa integratu beharko dituen; eta, gainera, kargatzeko oinarria eransteko aukera izan behar du. Fase horretan, Teknikerrek aholkuak emango ditu

prototipoak eraikitzeke, gailuak fabrikatzen hasi baino lehen, eta enpresari lagunduko dio hornitzaileak bilatzen.

Bestetik, hardwarea diseinatuko da, eta horren barruan sartzen dira elikatze eta konektibitateko elementuak garatzea, horiek ordenagailu batekin integratzea, zundarekin bateragarria den sistema eragilea eta irudi ultrasonikoak bistaratzeko elementuak, bai eta gailuaren elementu elektronikoen kudeaketa ere, adibidez, pantaila grafikoa, elikatzea eta temperatura neurtzeko sentsorea.

Proiektuaren fase honetan, halaber, hardware elementu guztiak gaitzeko eta integratzeko kapaz den firmwarea garatuko da, behin betiko produktuaren oinarria izango den prototipo funtzionala eraikitzeke. Horrez gain, elkarlan honetan Dispositivos Médicos Flecho enpresak garatutako softwarea integratuko da.

Kanpoko ingurutzalea garatzeko, zentroak hiru prototiporen karkasak diseinatu, integratu, fabrikatu eta muntatuko ditu, eta horiek erabiliko dira gailuaren funtzionaltasuna eta ergonomia egiaztatzeke.

Teknikerrek honelako prozesuetan pilatu duen know how edo ezagutzari esker, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu ahal izango du produktua homologatzeko, bai eta osagaien hornitzaile egokienak identifikatzeko eta industrializazio-prozesua errazteke ere.

Gailu berri honi esker, pazienteak bizimodu normalagoa izango du, ez baita beharrezkoa izango premia ospitalera joatea, eta, gainera, proba diagnostikoan ziztada kopurua murriztuko baita.

Teknikeri buruz

Teknikerrek 40 urte inguruko esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen Ingeniaritzan, Produktu-ingeniaritzan eta IKTetan), eta horrek abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen dio. Zentro teknologikoa Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ▶ Javier Urtasun

urtasun@guk.es | Tel. 637 273 728